| **2020KO UZTAILAREN 22AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXO KIROLAKEK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA** | **ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL CONSEJO RECTOR, EL DIA 22 DE JULIO DE 2020** |
|---|---|

Alvaro GONZALEZ PEREZ (PNV-EAJ)

| BERTARATUTAKO BOKALAK | VOCALES ASISTENTES |
|---|---|

AMIEVA CLEMENTE, Paula (ELKARREKIN PODEMOS)
ANDRADE AURRECOECHEA, Eduardo (PP)
ARANDUY ZUAZAGOTIA, Natalia (PP)
ARREGI MARTINEZ, Joseba (PNV-EAJ)
MASEDA SARATXO, Itxaso (EH BILDU)
OLAETA PÉREZ DE MENDIOLA, Asunción (PSE-EE)
RICA ALVAREZ, Arantza (PNV-EAJ)
RODRIGUEZ LARRINAGA, Ibon (EH BILDU)
SERGIO ATXOTEGI, Carlos (PNV-EAJ)
URIARTE GOROSTIAGA, Inazio (PNV-EAJ)

| BEHIN-BEHINEKO GERENTEA | GERENTE ACCIDENTAL |
|---|---|

ZABALA LASA, Gorka jn.

| AZTERGAIEN ZERRENDA | ORDEN DEL DIA |
|---|---|
| **49.**-2020ko ekainaren 17ko ohiko bilera akta onartzea, hala badagokio. | **49.**- Aprobación si procede, del acta del Consejo Rector ordinario del 17 de junio de 2020. |
| **50**.-125/2020 Lehendakaritza-ebazpenaren kontu ematea; horren bidez, 300.000 €-ko kreditua egokitzea onartu da. | **50.**- Dación de cuenta de la resolución de Presidencia nº 125/2020, por la que se aprueba una habilitación de crédito de 300.000 €. |
| **51**.- 2019. urteko Getxo Kirolakeko kontu orokorraren eta Udalera helaraztea onesteko proposamena. | **51**.-Propuesta de aprobación, si procede, de la Cuenta General 2019 para su elevación al Ayuntamiento. |
| **52**.- Erabaki-proposamena, GETXO KIROLETAKO KIROL-IKASTAROAK GARATZEKO ETA GAUZATZEKO ZERBITZU-KONTRATUA ALDI BATERAKO ERABAT ETETEKOA, 1. LOTEKO ERRAKETAK (TENISA ETA PADEL) KALITATE-KIROL PARTE-HARTZAILEA SUSTATZEKO uztailerako eta abuzturako, eta dagokion kalteordainari buruzko akordio eskuordetzeko. | **52**.- Propuesta de Acuerdo de SUSPENSIÓN TEMPORAL TOTAL DEL CONTRATO DE SERVICIOS, PARA EL DESARROLLO Y EJECUCIÓN DE LOS CURSOS DEPORTIVOS DE GETXO KIROLAK, CON EL OBJETIVO DE FOMENTAR EL DEPORTE PARTICIPATIVO DE CALIDAD – LOTE 1: RAQUETAS (TENIS Y PADEL) para los meses de Julio y Agosto y delegación del Acuerdo de Indemnización que corresponda. |
| **53**.- Erabaki-proposamena, GETXO KIROLETAKO KIROL-IKASTAROAK GARATZEKO ETA GAUZATZEKO ZERBITZU-KONTRATUA ALDI BATERAKO ERABAT ETETEKOA, 2. LOTEKO URETAKO JARDUERAK KALITATE-KIROL PARTE-HARTZAILEA SUSTATZEKO uztailerako eta abuzturako, eta dagokion kalteordainari buruzko akordio eskuordetzeko. | **53**.- Propuesta de Acuerdo de SUSPENSIÓN TEMPORAL TOTAL DEL CONTRATO DE SERVICIOS, PARA EL DESARROLLO Y EJECUCIÓN DE LOS CURSOS DEPORTIVOS DE GETXO KIROLAK, CON EL OBJETIVO DE FOMENTAR EL DEPORTE PARTICIPATIVO DE CALIDAD – LOTE 2: ACTIVIDADES ACUÁTICAS para los meses de Julio y Agosto y delegación del Acuerdo de Indemnización que corresponda. |
| **INFORMAZIO OROKORRA** | **INFORMACIÓN GENERAL** |
| ▪ Getxo Kirolak erakunde gisa parte hartzea Euskara Aldia 2020n<br>▪ Getxo Kirolak zerbitzuaren kontingentzia eta jarraitu-tasun-plana | ▪ Participación de Getxo Kirolak como entidad en el Euskara Aldia 2020<br>▪ Plan de contingencia y continuidad del servicio de Getxo Kirolak |



Sinatua: Gorka Zabala Lasa (Behin-behineko kudeatzailea/Gerente accidental) Data: 2020/08/13 Fecha: 13/08/2020
Firmado: Alvaro Gonzalez Perez (Getxo Kirolako Presidentea/Presidente de Getxo Kirolak) Data: 2020/08/13 Fecha: 13/08/2020

Getxo KIROLAK
Sinatua: Gorka Zabala Lasa (Behin-behineko kudeatzailea/Gerente accidental) Data: 2020/08/13 Fecha: 13/08/2020
Firmado: Alvaro Gonzalez Perez (Getxo Kirolakeko Presidentea/Presidente de Getxo Kirolak) Data: 2020/08/13 Fecha: 13/08/2020

| GALDE-ESKEAK | RUEGOS Y PREGUNTAS |
|---|---|
| ▪ Getxoko Udaleko sarrera-erregistroko 18.469 zenbakidun EH Bilduren galdera, Fadurako gimnasioa irekitzeari buruzkoa. | ▪ Pregunta de EH BILDU con registro de entrada del Ayuntamiento de Getxo nº 18.469, sobre apertura del gimnasio de Fadura. |

Getxon, 2020ko uztailaren 22an, 10:15ean, ohiko bileran bildu da Zuzendaritza Batzordea, Getxoko Udaletxeko Udalbatza Aretoan, goian aipatutako pertsonak batu direlarik (streaming bidez).

En Getxo, a las 10:15 horas del día 22 de julio de 2020 se reúne (vía streaming) en sesión ordinaria, en el Salón de Plenos del Ayuntamiento de Getxo, el Consejo Rector con la asistencia de las personas que arriba se relacionan.

**49.- 2020KO EKAINAREN 17KO OHIKO BILERA AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO**

**49.- APROBACIÓN SI PROCEDE, DEL ACTA DEL CONSEJO RECTOR ORDINARIO DEL 17 DE JUNIO DE 2020**

Bertaratutakoek AHO BATEZ onartu dute 2020/06/17ko data duen akta.

Se aprueba por UNANIMIDAD de los presentes el acta de fecha 17/06/2020.

**50.-125/2020 LEHENDAKARITZA-EBAZPENAREN KONTU EMATEA; HORREN BIDEZ, 300.000 €-KO KREDITUA EGOKITZEA ONARTU DA.**

**50.- DACIÓN DE CUENTA DE LA RESOLUCIÓN DE PRESIDENCIA Nº 125/2020, POR LA QUE SE APRUEBA UNA HABILITACIÓN DE CRÉDITO DE 300.000 €.**

Batzordeburuak, 125/2020 zenbakiko ebazpena deialdiarekin batera bidali dela jakinarazi du. Horren bitartez 300.000 euroko kreditu-gaikuntza onartzen da.

El Presidente informa que juntamente con la convocatoria se ha enviado la resolución nº 125/2020, por la que se aprueba una habilitación de crédito de 300.000 euros.

Paula Amievak azalpena eskatu du; izan ere, gaikuntzan bertan ez dator banakapena, eta galdetu du ea 16/2020 kreditu gehigarriaren baliokidea den, informazio hori ez baita erantsi, beste batzuetan egin den bezala.

Paula Amieva solicita aclaración dado que en la propia habilitación no viene el desglose, y pregunta si es equivalente al crédito adicional 16/2020 ya que esa información no se acompaña como ocurre en otras ocasiones.

Batzordeburuak adierazi du informazioa bidaliko dela; hala ere, bederatzi jarduketen laburpen txiki bat egin du:

El Presidente participa que se enviará la información; no obstante, hace un pequeño resumen de las nueve actuaciones que consisten en:

▪ Gobelako Igerilekuak egokitzea: Gogorarazi du iaz aldaketa egin zela klorora, eskuzko dosifikazio-sistema instalatu zela eta gaur egun sistema automatikora pasatu dela. Ikusi denez, sistema horrek ondo funtzionatzen du. Kontuz ibili behar zen kloroa eta hormigoia nahasteak eragin zitzakeen ondorioak zirela eta; izan ere, igerilekua bromoarekin erabiltzeko diseinatuta zegoen, hau da, dosifikazio-sistema osoa automatizatu da, eta orain segurtasun handiagoa ematen du, lehen eskuz programatzen zelako eta gaur egun modu automatikoan egiten delako. 31.147,32 € (BEZ barne)

▪ Acondicionamiento Piscinas de Gobela: Recuerda que el pasado año se realizó un cambio a cloro, se instaló un sistema manual de dosificación y actualmente ha pasado a un sistema automático, que se ha visto funciona bien, se tenía alguna precaución por los efectos que pudiera causar la mezcla del cloro con el hormigón, ya que la piscina estaba diseñada con bromo, es decir, se ha automatizado todo el sistema de dosificación y ahora da más seguridad porque se programaba de forma manual y actualmente es de forma automática. 31.147,32 € (IVA incluido)

▪ Fadurako Ur Bero Sanitarioaren (ACS) instalazioa eraberritzea: funtsean, depositu batzuk aldatzea da, eta hori materiala erostean egiten da. 3.292,75 € (BEZ barne)

▪ Reforma de Instalación Agua Caliente Sanitaria (ACS) de Fadura: Básicamente es cambiar unos depósitos que se realiza con la compra del material. 3.292,75 € (IVA incluido)

▪ Igerilekuak berotzea: hodiak, balbulak, tenperatura zundak, trukagailuak… aldatzea da, eta horiek ere Getxo Kirolak erakundean erosten den materiala dira. 23.122,62 € (BEZ barne)

▪ Calentamiento de las Piscinas: Es el cambio de tuberías, valvulerías, sondas de temperatura, intercambiadores, y también es material que se compra en Getxo Kirolak. 23.122,62 € (IVA incluido)

▪ Fadurako Igerileku Estalien iragazkiak: aldian-aldian, ariete-kolpeen (ur-kolpeen) ondorioz iragazkiek deformazio asko izaten dituzte instalazioa irekitzen denean, eta orain ordeztea eskatzen dute. 34.600,56 € (BEZ barne)

▪ Filtros de Piscinas Cubiertas Fadura: Cada cierto tiempo los filtros por los golpe de ariete (golpe de agua) cuando se abre la instalación sufren muchas deformaciones y ahora requiere su sustitución. 34.600,56 € (IVA incluido)

▪ <u>Fadurako Igerilekuetako indar-koadroak berritzea</u>: igerilekuetako indar-koadroak berritu dira, azkenean elektrifikazioarekin erlazionatutako gaiak dira, eta parte bat tentsio ertainean espezializatutako kanpoko enpresa batek egiten du, eta beste parte bat gure ekipoek. 27.376,50 € (BEZ barne)

▪ <u>Renovación de cuadros de fuerza Piscinas Fadura</u>: Se han renovado los cuadros de fuerza de piscinas, al final son temas de electrificación que una parte la hace una empresa externa especializada en media tensión y otra parte la hacen nuestros equipos. 27.376,50 € (IVA incluido)

▪ <u>Fadurako kontrol-sistemak berritzea</u>: mantentze-lanen kontrol integraleko sistemak berritu dira, zerbait gertatuz gero mantentze-lanen arduradunak etxetik monitorizatu ahal izan dezan. 40.876,83 € (BEZ barne)

▪ <u>Renovación de sistemas de control de Fadura</u>: Se han renovado los sistemas de control integral de mantenimiento para que el responsable de mantenimiento pueda monitorizarlo desde casa, en caso de que suceda algo. 40.876,83 € (IVA incluido)

▪ <u>Gobelako kiroldegiko estalkia konpontzea</u>: Gogorarazi duenez pandemiaren hasieran itogin batzuk egon ziren eta horiek konpondu egingo dira. 47.835,90 € (BEZ barne)

▪ <u>Reparación cubierta Polideportivo Gobela</u>: Recuerda que al inicio de la pandemia hubo una serie de goteras y se va a proceder a su reparación 47.835,90 € (IVA incluido)

▪ <u>Zaharkitutako guneak</u>: zaharkitutako eremuetarako urtero edo bi urtez behin ateratzen den kontratua da. Oinarrian baldosak aldatzen dira, apurtuta dauden zoruak konpondu, hormak margotu. 60.000 € (BEZ barne)

▪ <u>Zonas envejecidas</u>: Es un contrato que sale cada uno o dos años para las zonas envejecidas y que basicamente es para cambiar baldosas, suelos rotos, pintado de paredes. 60.000 € (IVA incluido)

▪ <u>Hainbat konponketa</u>: Une honetatik urte amaierara bitartean egin beharreko konponketak dira, eta hauek dira: aldageletako ateak, kanalizazioak, ur-eroanbideak, hustubideak eta kutxatilak konpontzea. 31.747,53 € (BEZ barne)

▪ <u>Reparaciones varias</u>: Son reparaciones para ejecutar desde ahora y hasta final de año y consisten en: arreglo de puertas de vestuarios, canalizaciones, conducciones de agua, desagües y reparación de arquetas. 31.747,53 € (IVA incluido)

Dena den, Batzordeburuak informazio hori bidaliko dela adierazi du.

De todas formas, el Presidente participa que se enviará esta información.

Ibon Rodriguezek esan du ez duela prozedura ulertzen; oker ez badago, gastu batzuk aipatzen dira, eta horien artean gutxienez sei aurrekontuan sartuta egon beharko lirateke, eta ez du ulertzen zergatik onartu behar den orain kreditu gehigarria; ez daki hori Udalak eman behar zituen aurrekontuetan aurreikusitako dirua den edo Udalak diru hori zelan hornitzen duen. Bere ustez, Gobelan egiten dena aldaketa bat da, eta hori ezin da aurrekontuetan urtero kontuan hartu; halaber, ulertzen du, adibidez, Faduran kontrol bat egotea edo beste kasu batean izan diren estalkiaren arazoak, baina gero igerilekuen berotzeaz, iragazkiez, indar-koadroez hitz egiten da. Horrek guztiak eguneroko lanari dagokio, eta hori jada aurrekontuan sartuta dago. Beraz, agian ez duela prozedura ondo ulertzen izango da.

Ibon Rodriguez dice que no entiende el procedimiento, si no se equivoca se mencionan unos gastos entre los que por lo menos, seis, deberían estar incluidos ya en el presupuesto y no entiende por que se requiere ahora de una aprobación de crédito adicional; no sabe si esto es dinero previsto ya en los presupuestos que tenía que dar el ayuntamiento o como provee de este dinero el Ayuntamiento. Entiende que lo que se hace en Gobela es una modificación y que no se puede tener en cuenta cada año en los presupuestos, también entiende que por ejemplo exista un control en Fadura o los problemas de la cubierta que ha habido en otro caso, pero luego se habla del calentamiento de piscinas, filtros, cuadros de fuerza, todo ello corresponde a trabajo cotidiano y esto está ya incluido en el presupuesto, por lo tanto, igual es que no entiende bien el procedimiento.

300.000 euro aipatzen dira, eta galdera hau da: Zer dira, Udalak aurrekontuan eman behar zuenaren gehigarriak? Ala Udalak eman behar zuenaren aurrekontuan sartuta zeuden jadanik? Aurrekontuaren barruan badaude arazoa horiena da baina bestela ez luke ulertuko, hau da, aurrekontuak idatzi dira eta orain bat-batean kreditu gehigarri bat behar da eguneroko lanetarako. Hau da, galdera da ea barruan dauden ala gehigarriak diren.

Se habla de 300.000 euros y la pregunta es: ¿qué son adicionales a lo que el ayuntamiento ya tenia que dar en el presupuesto? o ¿ya estaba incluido en el presupuesto de lo que el ayuntamiento tenía que dar?. Si están dentro del presupuesto el problema es suyo pero sino no lo entendería, es decir, se han redactado los presupuestos y ahora de repente se necesita un credito adicional para trabajos cotidianos. Es decir, la pregunta es si están dentro o son adicionales.

Batzordeburuak erantzun du jarduketa horiek ez direla eguneroko jarduketak, inbertsioak direla, eta Getxo Kirolak erakunderako aurrekontu-akordioan ez zegoela 6. kapitulurik (Inbertsioak). Hori inbertsiotzat hartzen da, eta, mantentze-zerbitzuak ekitaldi honetarako zer behar duen jakiten denean, kreditu bat eskatzen da, urtero gehiago edo gutxiago, 300.000 euro, gehiagorako gastu-ahalmenik ere ez dagoelako, izan ere, normalean

El Presidente responde que estas actuaciones exactamente cotidianas no son, no dejan de ser inversiones y en el acuerdo presupuestario para Getxo Kirolak no había capítulo 6 (Inversiones) y esto se contempla como inversiones y una vez que se conoce lo que necesita el servicio de mantenimiento para este ejercicio se solicita un credito por el importe, que más o menos todos los años es el mismo, 300.000 euros,



Sinatua: Firmado: Gorka Zabala Lasa (Behin-behineko kudeatzailea/Gerente accidental) Data: 2020/08/13 Fecha: 13/08/2020
Alvaro Gonzalez Perez (Getxo Kirolakeko Presidentea/Presidente de Getxo Kirolak) Data: 2020/08/13 Fecha: 13/08/2020

instalazioak okupatuta egoten dira. Aurten instalazioa ia lau hilabetez publikoari ireki barik –baina ez itxita– egongo zela jakinez gero, askoz konponketa gehiago egin zitezkeen. Ohiko urte batean egin daitezkeen konponketak dira horiek, gutxi gorabehera, eta, gero, mantentze-saila da beharren arabera erabakitzen duena; egia da, batzuetan, iragazkien aldaketa aurreikus daitekeela, baina beste batzuetan, ez, eta, are gehiago, materialen bizitza luzatzeko ahalegina egiten da, berrikusi egiten delako eta luzapen hori jasan dezakeela ikusten delako.

Partida horiek ez zeuden aurrekontuan baina hori mundu guztiak ikusten du, aurrekontuan ez baitzegoen aurreikusita Getxo Kirolak erakunderako inbertsiorik.

Ibon Rodriguezek esan du horrek zalantza sortzen diola, eta bere hitzak modu txarrean ez hartzeko eskatu du, baina zerbait susmagarria dela, tranpa egin dela aurrekontuak idazterako orduan, Getxo Kirolak erakundearen aurrekontua delako egiten dena, baina aurrekontu horretan ez dira kontuan hartzen Getxo Kirolak behar bezala mantentzeko beharrezkoak diren bestelako inbertsioak, mantentze-lanetarako gastuak, batez ere; beraz, erdi iruzurtzat har daiteke, ez duelako benetan biltzen Getxo Kirolak-ek lanean jarraitzeko behar duen diru guztia.

Onartzen da Udalak diru kopuru bat eman behar diola Getxo Kirolak erakundeari -lauzpabost milioi-, baina gero ez da horrela egiten benetan, berak Erromotik beste leku batera pasatu dela onartzen baitu, baina uste du dena ez dela inbertsioa, uste du gauza batzuk egunero mantendu behar direla eta aurrekontuan sartu behar liratekeela. Ez daki ur bero sistemaren aldaketa jasota egon behar den ala ez, baina bai gutxieneko mantentze-lanak, zaharkitutako guneak, konponketak. Agian ez dira urtero aldatzen, baina badakigu gutxi gorabehera zein den iragazki horien iraupena, eta, beraz, jakingo duzue 2021ean eta 2025ean aldatu egin beharko direla. Gero aldatzen ez badira, ados, baina aurreikusi daitekeen zerbait da, eta aurrekontuan sartu beharko litzateke, bestela tranpa delako.

Hori da Getxo Kirolak kostatzen dena, baina mantentze-lana kontuan hartu barik. Zer esaten ari zaie herritarrei aurrekontuak onartzeko orduan? Ustezko aurrekontu batzuk, benetakoak ez direlako, figuratiboak direlako, eta hori ez dute ulertzen, izan ere, ohikoak diren gastu batzuk ez dira sartzen, gauza batzuk zaharkitutako guneak dira, beraz, behin eta berriro errepikatzen bada, zergatik ez da sartzen? Ulertzen du zergatik ez den egiten, baina salatu nahi duten zerbait da, behin eta berriro errepikatzen diren mantentze-gastuak dira, sartuta egon beharko luketenak, eta, gero, Udalak Getxo Kirolak erakundeari egiten dizkion ekarpenak handitu egiten dira; beraz, Getxo Kirolak-en aurrekontua beste bat da, errealitatea beste bat baita.

Batzordeburuak erantzun du aurrekontu bat aurrekontu bat dela, eta gauzatzea ondoren datorrela; agian, ohiko mantentze-lanen partean konturen bat sar liteke, baina ezin izango litzateke esan horiei buruz erabat aurreikus daitekeenik. Urtero ez dira guztiak gauzatzen, ez direlako beharrezkoak.

porque tampoco hay capacidad de gasto para más, ya que normalmente las instalaciones están ocupadas. De saber que este año iba a estar la instalación sin abrir al público –no cerrada- casi cuatro meses, evidentemente se podrían haber afrontado muchas más reparaciones. Estas son las reparaciones que en un año habitual, más o menos se pueden afrontar, luego el área de mantenimiento es el que decide en función de las necesidades, es cierto, que a veces se puede preveer el cambio de los filtros, pero otras veces no, e incluso a veces se intenta alargar la vida de los materiales más allá porque se revisa y se ve que pueden aguantar.

Estas partidas no estaban en el presupuesto pero esto todo el mundo lo ve ya que no había inversiones de Getxo Kirolak previstas en el presupuesto.

Ibon Rodríguez comenta que eso le genera una duda, y dice que no se tomen sus palabras como algo negativo, pero es algo sospechoso, se ha hecho trampa a la hora de redactar los Presupuestos, porque lo que se hace es: Presupuesto de Getxo Kirolak, pero en ese presupuesto no se tiene en cuenta otro tipo de inversiones que son necesarias para que Getxo Kirolak se tenga que mantener adecuadamente, como son los gastos de mantenimiento, basicamente; por lo tanto, es un poco fraudulento porque realmente no recoge todo el dinero que Getxo Kirolak necesita para mantenerse.

Se acepta que el Ayuntamiento tiene que dar a Getxo Kirolak una cantidad de dinero -cuatro o cinco millones- pero luego no es eso realmente, porque él acepta que se ha pasado de Romo a otro sitio pero cree que no todo es inversión, cree que hay cosas que son de mantenimiento cotidiano y deberían estar incluidas en el presupuesto, desconoce si tiene que estar recogido el cambio de agua caliente pero sí un minimo de mantenimiento, zonas envenjecidas, reparaciones. Igual cada año no se cambian pero se sabe aproximadamente cual es la duración de dichos filtros y por lo tanto, sabrán que en el año 2021 y 2025 se tendrán que cambiar, si luego no se cambian, de acuerdo, pero es algo que se puede preveer y debería incluirse en el presupuesto porque sino es trampa.

Esto es lo que cuesta Getxo Kirolak pero sin tener en cuenta el trabajo de mantenimiento ¿qué se está diciendo a la ciudadania a la hora de aprobar los Presupuestos? Unos presupuestos supuestos porque no son los reales, son figurativos y eso es lo que no entienden porque hay unos gastos que son habituales que no se incluyen, hay cosas que son zonas envejecidas, por lo tanto, si es recurrente ¿por qué no se incluye? Entiende por qué no se hace pero es algo que quieren denunciar, son gastos recurrentes de mantenimiento que deberían estar incluidos y luego se amplian las aportaciones del Ayuntamiento a Getxo Kirolak con lo cual resulta que el Presupuesto de Getxo Kirolak es otro ya que la realidad es otra.

El Presidente responde que un presupuesto es un presupuesto, luego viene la ejecución, tal vez alguna cuestión podría incluirse en la parte de mantenimiento habitual pero no podría decir de estos cual es absolutamente previsible. No todos los años se ejecutan todos porque no son necesarios.



Sinatua: Gorka Zabala Lasa (Behin-behineko kudeatzailea/Gerente accidental) Data: 2020/08/13 Fecha: 13/08/2020
Firmado: Alvaro Gonzalez Perez (Getxo Kirolakeko Presidentea/Presidente de Getxo Kirolak) Data: 2020/08/13 Fecha: 13/08/2020

**51.- 2019. URTEKO GETXO KIROLAKEKO KONTU OROKORRAREN ETA UDALERA HELARAZTEA ONESTEKO PROPOSAMENA**

Batzordeburuak 2019ko Kontu Orokorra bozkatzeko aurkeztu du, Udalari aurkezteko, eta honela geratu da ONARTUTA:

| | |
|---|---|
| Alde.......... | 6 (EAJ/PNV – PSE) |
| Abstentzioak.. | 5 (PP – EH Bildu – ELKARREKIN PODEMOS |

**51.- PROPUESTA DE APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA CUENTA GENERAL 2019 PARA SU ELEVACIÓN AL AYUNTAMIENTO**

El Presidente somete a votación la Cuenta General 2019 para su elevación al Ayuntamiento, quedando APROBADA de la siguiente forma:

| | |
|---|---|
| A favor.......... | 6 (EAJ/PNV – PSE) |
| Abstenciones.. | 5 (PP – EH Bildu – ELKARREKIN PODEMOS |

**52.- ERABAKI-PROPOSAMENA, GETXO KIRO-LETAKO KIROL-IKASTAROAK GARATZEKO ETA GAUZATZEKO ZERBITZU-KONTRATUA ALDI BATERAKO ERABAT ETETEKOA, 1. LOTEKO ERRAKETAK (TENISA ETA PADEL) KALITATE- KIROL PARTE-HARTZAILEA SUSTATZEKO UZTAILERAKO ETA ABUZTURAKO, ETA DAGOKION KALTEORDAINARI BURUZKO AKORDIO ESKUORDETZEKO.**

Batzordeburuak jakinarazi du, guztiok ezagutzen ditugun arrazoiak direla-eta, ezin izan direla ikastaroak egin, ezin izan delako ohiko esleipen-prozesua gauzatu, eta instalazioen baldintzek ez zutelako segurtasunez eta lasaitasunez egiteko aukerarik ematen, ez herritarrentzat, ezta Getxo Kirolak-entzat ere. Horregatik, I. lotea: Erraketak (Tenisa eta Padela) bertan behera uztea proposatu da.

Ibon Rodriguezek zalantza bat duela dio, eta galdera hauxe da: etenaldi hori, gaizki ulertu ez badut, ez dago COVIDa dela eta hartutako neurriekin erlazionatuta, ez dago neurri horien babesean, kontratuaren barruan etenaldi bat egiten da. Apirilaren 1ean etenaldia egon da, Espainiako Gobernuaren dekretuaren babesean, baina orain egiten dena kontratuaren beraren klausuletan oinarritzen da, ez COVIDak sortutako egoeran.

Batzordeburuak jakinarazi du gaur egun indarrean dagoen araudiaren araberakoa dela, eta ez COVIDaren eta kontratuaren klausulen araberakoa.

Batzordeburuak jakinarazi du ez dakiela enpresak ERTEn dauden ala ez. ERTEn badaude ez dutela eskubiderik eta kalte-ordaina ERTEn ez badaude baino txikiagoa dela, inguruabarrak berberak baitira.

Ibon Rodriguezek adierazi du ez dela bakarrik etenaldia planteatzen, eta bigarren galdera hau da: zein da Getxo Kirolakentzat horrek izango duen kostua? Zenbat diru ordaindu beharko du Getxo Kirolakek kalte-ordainetan? Izan ere, kalte-ordainez eta horiek kalkulatzeko prozesuaz hitz egiten ari gara, onartutako kontratuaren %60, eta abar, baina etetea zenbat kostatuko zaio Getxo Kirolak erakundeari?

Batzordeburuak erantzun du oraindik ez duela datu hori, etetea Errektoretza Kontseilura ekarri behar izan delako gero kalte-ordaina emateko, onartzen bada, eta enpresarekin batera kalkulatu ondoren.

**52.- PROPUESTA DE ACUERDO DE SUSPENSIÓN TEMPORAL TOTAL DEL CONTRATO DE SERVICIOS, PARA EL DESARROLLO Y EJECUCIÓN DE LOS CURSOS DEPORTIVOS DE GETXO KIROLAK, CON EL OBJETIVO DE FOMENTAR EL DEPORTE PARTICIPATIVO DE CALIDAD – LOTE 1: RAQUETAS (TENIS Y PADEL) PARA LOS MESES DE JULIO Y AGOSTO Y DELEGACIÓN DEL ACUERDO DE INDEMNIZACIÓN QUE CORRESPONDA**

El Presidente informa que por las razones de todos conocidas no se han podido celebrar los cursos porque no se ha podido hacer el proceso de adjudicación habitual y porque las condiciones de las instalaciones no permitía hacerlo con seguridad y tranquilidad, tanto para la ciudadania como para Getxo Kirolak, por lo que se propone la suspensión de este Lote I: Raquetas (Tenis y Padel).

Ibon Rodríguez dice que tiene una duda y la pregunta es: esta suspensión, si no he entendido mal, no está relacionada con las medidas tomadas por el COVID, no está al amparo de esas medidas sino que se hace una suspensión al amparo del contrato. Ha habido una suspensión el 1 de abril, al amparo del decreto del Gobierno Español pero lo que se hace ahora es al amparo de las clausulas del propio contrato, no al amparo de la situación generada por el COVID.

El Presidente informa que es por la normativa vigente actual, que no es la del COVID y las cláusulas del contrato.

El Presidente informa que desconoce si las empresas están en ERTE o no, si están en ERTE no tienen derecho y la indemnización es menor que si no están en ERTE, las circunstancias son las mismas.

Ibon Rodríguez señala que se plantea no solo la suspensión y la segunda pregunta es: ¿cuál es el coste para Getxo Kirolak? ¿Cuánto dinero tendrá que pagar Getxo Kirolak en indemnizaciones? Porque sí se habla de indemnizaciones y del proceso para calcularlas, el 60% del contrato aprobado, etc., pero ¿La suspensión cuanto cuesta a Getxo Kirolak?

El Presidente responde que aún no se dispone de ese dato, porque la suspensión se ha tenido que traer al Consejo Rector para luego proceder a la indemnización, si se aprueba, y despues proceder a su cálculo junto con la empresa.



Sinatua: Gorka Zabala Lasa (Behin-behineko kudeatzailea/Gerente accidental) Data: 2020/08/13 Fecha: 13/08/2020
Firmado: Alvaro Gonzalez Perez (Getxo Kirolako Presidentea/Presidente de Getxo Kirolak) Data: 2020/08/13 Fecha: 13/08/2020

Ibon Rodriguezek adierazi du agian oker dagoela, baina horrelako erabakiak hartzen direnean lehenago erabaki baten kostua aurreikusi behar dela, eta ez dakiela gutxi gorabeherako aurreikuspen bat egin den ala ez.

Batzordeburuak adierazi du erabaki hori hartuko ez balitz, ziur dagoela Getxo Kirolak erakundearentzat kostua kontratua etetea baino handiagoa izango litzatekeela, ez programatzeagatik zerbitzua emango ez balitz, enpresari zerbitzuaren %100 ordaindu beharko litzaiokeelako; edonola ere, garestiagoa izango da etetea ez onartzea onartzea baino.

Ibon Rodriguezek hori ulertzen du, baina logikotzat jotzen duen beste datu bat eskatzen du, hau da, erabaki bat hartzen denean jakin behar dela horrek zer ondorio ekarriko dituen. Igual zuentzat ez da gauza logikoa, oso eredu desberdinak ditugulako.

Batzordeburuak esan du logikoa dela hori jakitea, baina badakitela hori ez onartzea baino txikiagoa izango dela, eta, hori jakinda, orain kalkulatu egin beharko dela; onartzen ez bada, %100 ordaindu behar da, eta Legez onartutako araudiak ezartzen duena ordaindu behar da, eta, jakina, Errektoretza Kontseiluan horren berri emango da, eta, gainera, lehendakaritzaren ebazpenak ikusiko dira.

Puntu hau bozkatu ondoren, Getxo Kirolak – I. Erraketak lotea: Tenisa eta Padela kirol-ikastaroak garatzeko eta gauzatzeko zerbitzu-kontratuaren aldi baterako etetea ONARTU da, uztailerako eta abuzturako, eta dagokion kalte-ordainari buruzko erabakia eskuordetu da, emaitza honekin:

| | |
|---|---|
| Alde........... | 6 (EAJ/PNV – PSE) |
| Abstentzioak.. | 5 (PP – EH Bildu – ELKARREKIN PODEMOS |

**53.- ERABAKI-PROPOSAMENA, GETXO KIROLETAKO KIROL-IKASTAROAK GARATZEKO ETA GAUZATZEKO ZERBITZU-KONTRATUA ALDI BATERAKO ERABAT ETETEKOA, 2. LOTEKO URETAKO JARDUERAK KALITATE-KIROL PARTE-HARTZAILEA SUSTATZEKO UZTAILERAKO ETA ABUZTURAKO, ETA DAGOKION KALTEORDAINARI BURUZKO AKORDIOA ESKUORDETZEKO**

Bertaratutakoek ez dutenez inolako esku-hartzerik izan, batzordeburuak puntu hau bozketarako aurkeztu du, eta Getxo Kirolak-eko kirol-ikastaroak garatzeko eta gauzatzeko zerbitzu-kontratuaren aldi baterako etetea ONARTU da (2. lotea: uztailerako eta abuzturako Uretako Jarduerak), eta dagokion kalte-ordainari buruzko akordioa eskuordetu da, emaitza honekin:

| | |
|---|---|
| Alde........... | 6 (EAJ/PNV – PSE) |
| Abstentzioak.. | 5 (PP – EH Bildu – ELKARREKIN PODEMOS |

Ibon Rodríguez expresa que igual está equivocado pero cuando se toman este tipo de decisiones antes se debe preveer el coste de una decisión y desconoce si se ha hecho una previsión aproximada.

El Presidente participa que si no se tomara esta decisión está seguro que el coste para Getxo Kirolak seria superior que a la suspensión del contrato, aunque no se preste el servicio porque no se ha programado, a la empresa habria que abonarle el 100% del servicio; en cualquier caso va a salir más caro no aprobar la suspensión que aprobarla.

Ibon Rodriguez eso lo entiende pero pide otro dato que consideran lógico, es decir, cuando se toma una decisión hay que saber las consecuencias que trae consigo, igual para ustedes no es algo lógico porque tenemos modelos muy diferentes.

El Presidente dice que es lógico saberlo pero también saben que va a ser inferior a no aprobarlo, y conociendo esto, ahora proceder a calcularlo; si no se aprueba se paga el 100% y si se aprueba se abona lo que la normativa aprobada por Ley establezca y por supuesto se dará cuenta en el Consejo Rector del importe y además se verán las resoluciones de presidencia.

Sometido a votación este punto, queda APROBADA la Suspensión Temporal Total del Contrato de Servicios para el desarrollo y ejecución de los cursos deportivos de Getxo Kirolak – Lote I Raquetas: Tenis y Padel para los meses de Julio y Agosto y delegación del Acuerdo de Indemnización que corresponda, con el resultado siguiente:

| | |
|---|---|
| A favor........... | 6 (EAJ/PNV – PSE) |
| Abstenciones.. | 5 (PP – EH Bildu – ELKARREKIN PODEMOS |

**53.- PROPUESTA DE ACUERDO DE SUSPENSIÓN TEMPORAL TOTAL DEL CONTRATO DE SERVICIOS, PARA EL DESARROLLO Y EJECUCIÓN DE LOS CURSOS DEPORTIVOS DE GETXO KIROLAK, CON EL OBJETIVO DE FOMENTAR EL DEPORTE PARTICIPATIVO DE CALIDAD – LOTE 2: ACTIVIDADES ACUÁTICAS PARA LOS MESES DE JULIO Y AGOSTO Y DELEGACIÓN DEL ACUERDO DE INDEMNIZACIÓN QUE CORRESPONDA**

Dado que no hay ninguna intervención por parte de los asistentes, el Presidente somete a votación este punto, quedando APROBADA la Suspensión Temporal Total del Contrato de Servicios para el desarrollo y ejecución de los cursos deportivos de Getxo Kirolak – Lote 2 Actividades Acuáticas para los meses de Julio y Agosto y delegación del Acuerdo de Indemnización que corresponda, con el resultado siguiente:

| | |
|---|---|
| A favor........... | 6 (EAJ/PNV – PSE) |
| Abstenciones.. | 5 (PP – EH Bildu – ELKARREKIN PODEMOS |



Getxo KIROLAK
